2026-11-06 OSTIRALA
1.769. ZENBAKIA

txintxarri

LASARTE-ORIAKO ALDIZKARIA
TXINTXARRI.EUS / TOKIKOM.EUS



Denbora musuetan neurtzen irakatsiko digute sudurgorriek

'Musu bete urte' lana kaleratu berri dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek / 7

Antonio Mercero aretoan aurkeztu dute pailazoek euren azken lana. GurasoLandiako familiak eurekin izan dira. TXINTXARRI

KIROLA

Ruth Beitia eta Hector Gonzalezengandik asko ikasi dute Ostadar SKTko atleta gazteek / 13



TXINTXARRI

GIZARTEA

Azaroaren 25aren bueltako ekimenak aurkeztu ditu udalak; aurrenekoak egin dituzte dagoeneko / 2

GIZARTEA

Herriko zenbait eragile hasi dira hilaren 11ko greba orokorrarekin bat egiten eta giroa berotzen / 6

HEZKUNTZA

Lankidetza egitasmoa martxan jarri dute Oriarte Larrekoetxeko ikasle talde batek eta TXINTXARRI-k / 11



GIZARTEA

Emakumeen Aurkako indarkeriaren kontra jarduteko ekimen ugari

Igone Mariezkurrenaren eta Irantzu Pastorren 'Lumineszenteak' erakusketak ireki du Azaroaren 25eko egitaraua. 'La última vez' antzezlana ikusteko aukera ere izan dute herritarrek

Txintxarri

Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira (hilaren 25a, asteazkena) antolatutako egitaraua aurrera eramaten ari da Lasarte-Oriako Udala. Askotariko jarduerak iragarri ditu abendu erdialdera arte, eta dagoeneko prestaturiko horietako lehengoetan parte hartzeko aukera izan dute lasarteoriatarrek.

Irantzu Pastorren eta Igone Mariezkurrenaren *Lumineszenteak* erakusketak hartu du Antonio Mercero aretoa egunotan. "Ilunpetan argia igortzeko gai diren izakiak" dira lumineszenteak. Halaxe egiten dute aipatu erakusketa gelako paretetan Mariezkurrenak eta Pastorrek eskegi dituzten argazkietako emakumeek ere (baita sortzaileek ondutako izen bereko liburuan jasota dauden gainerako lekukoek ere): bizi (izan) duten iluntasunean argia transmititu. 2017 eta 2021 artean Palestinan, Indian, Lakota Nazioan eta Euskal Herrian elkarrizketatutako 63 emakumeren kontakizunek eta erretratuek osatzen dute *Lumineszenteak* liburua eta erakusketak lan hori oinarri hartuta, lagin bat erakusten du; 24 emakumeren irudiak eta testigantzen laburpenak topatuko dituzte ikusleek. Hiru astez izango da horretarako aukera, hots hilaren 20ra arte.

Arestian esan bezala, 2017an hasi zuten proiektua. Palestinara egin zuten lehen bidaia, eta handik ekarri eta erakutsitako irudi eta kontakizunek nerabezaroaren, amatasunaren eta gaixotasunaren gaiak erakusten dituzte. Indiako errealitateak ere gertutik ezagutu zituzten gero; herrialde horretako emakume alargunez, Adivasi-etaz, Tamasha dantzarien bizipenez eta Hijra kolektiboko kideen errealitatearen gaineko informazioa eskura dezakete ikusleek. Lakota nazioko emakumeen bizipenak ere erakutsi dituzte; asimilazio kulturalaz, femizidioez, bertako adingabeen aurkako sexu gehiegikeriaz eta generoaren eta sexualitatearen kolonizazioaren gaineko testigantzak bildu dituzte. Azkenik, Euskal Herrira begira jarri ziren Mariezkurrena eta Pastor. Bertako indarkerien bila hasi, eta hor ere topatu zituzten hainbat errealitate ikusarazi dituzte. Forma ikusezinak dituen etxegabetasunaren lekukotza ematen duten bi emakumeren errealitatea ezagut daiteke, baita zaintzaren eta arrazakeriaren arloan ezkutuko indarkeria jasaten dutena ere. Bortxa estetikoaren bi lekukotza ere erakutsi dituzte.

Asteazken arratsaldean, berriz, hilaren 4an, *La última vez* antzezlana eskaini du Abrego konpainiak, kultur etxean. Eguneroko bizimodua erakusten du obrak, eta indartsu nahiz babesgabe sentitzen diren emakumeak omentzen ditu. Helburua ikusleak emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinetara hurbiltzea izanik, eraso horien aurrean isilik ez egotearen eta egoerari aurre egitearen garrantzia azpimarratzen du.



Bisita gidatuak egin dituzte proiektuaren egileek. TXINTXARRI



Ikusteko moduko lana egin dute. TXINTXARRI




Palestinako, Indiako, Lakota nazioko eta Euskal Herriko emakumeen irudi eta lekukotzak bildu dituzte. TXINTXARRI



Aktore bat, telefonoz hizketan. TXINTXARRI



Indartsu nahiz babesgabe sentitzen diren emakumeak omendu ditu. TXINTXARRI



'La última vez' antzezlana oholtzaratu du Abrego konpainiak, Manuel Lekuona Kultur Etxean. TXINTXARRI

GIZARTEA

Borroka feminista "gaztetasunetik" indartzeko tresnaren berri eman dute

Hernanin aurkeztu dute 'Hemendik' bide orri berria Euskal Herriko Gazte Feministek. Berrehun pertsona baino gehiago bertaratu dira, horien artean gure herriko Asunak eragileko kideak. Egun osoko egitarauaz gozatu dute guztiek

Txintxarri

Buruntzaldea eskualdeko udalerrietako bat, Hernani, aukeratu zuten EHGF Euskal Herriko Gazte Feministek azken urteotako antolakuntzaren bilakaera aztertzen eta borroka feminista "gaztetasunetik" indartzeko gakoak jasotzen dituen *Hemendik. Borrokak ibilerarik badu, hau da gurea* izeneko tresna aurkezteko. Berrehun pertsona baino gehiago joan ziren urriaren 31n egindako ekitaldira, horien artean gure herriko Asunak eragileko kideak. Proiektu politiko horren nondik norakoak ezagutu ostean beste ekimen ugariz gozatu zuten, egun osoko egitaraua prestatu baitzuten antolatzaileek.

EHGFko kideek azaldu zutenez, dokumentua ez da hausnarketa teoriko hutsa, bertan jasotako eraldaketak "iraunkor" bilakatzeko "lan militantearen emaitza" baizik, auzoz auzo eta herriz herri egindakoarena. Nahi dute "autodefentsa feminista, transfeminismoa, dekolonialitatea eta gazteen indarra" izan dira bide orri hori elaboratzeko oinarriak. *Hemendik* tresna mardula izanik helburu ugari dituzte egileek baina aurkezpenean behin eta berriro nabarmendu zutena hau izan zen: mugimendu feminista "gaztetasunetik" indartzea. Hori gauzatzeko, uztartuko dituzte "Euskal Herria, zapalkuntza sistemek eragiten dituzten oinarriak, autonomiak nahiz aliantzak eta gazte subjektuaren potentzialtasuna".



Hernanin aurkeztu zuten bide orri berria Euskal Herriko Gazte Feministek. KRONIKA



Lasarte-Oriako Asunak gazte feministen taldeko kideak Hernanin izan ziren. ASUNAK

Gozatzeko tartea ere bai

Bide orriaren xehetasunak ezagutzeko eta horiek barneratzen hasteko baliatu zuten goiza Hernanira joandako berrehun pertsona baino gehiagok. Ondoren, Atsegindegi plazan bazkaldu zuten, giro ederrean.

Bazkalostea girotzeko musika ekitaldi pare bat egin zituzten. Iruzta artistak kontzertu akustikoa eman zuen Atsegindegin bertan eta digestioa egiteko kalez kale ibili ziren feministak, La Fulana DJarekin batera.

Topaketa jendetsu hori amaituta, auzoz auzo eta herriz herri lanean jarraitzen dute tokian tokiko eragile feministek. Asunak taldekoak, besteak beste, hilaren 25aren bueltako egitaraua prestatzen ari dira.

Ez da hausnarketa teoriko hutsa, herriz herri egindako lan militantearen emaitza baizik

Transfeminismoa eta dekolonialitatea izan dira bide orria lantzeko oinarriak, besteak beste

GIZARTEA

Emakumeen Etxeko araudia osatzeko ekarpen bila ari dira

Txintxarri

Emakumeen Etxearen antolaketa eta funtzionamendua arautzeko prozesua abiatu du Lasarte-Oriako Udalak eta jakinarazi du norbanakoek zein elkarteek abenduaren 1era arteko epea izango dutela horren gaineko proposamenak eta iradokizunak helarazteko. Parte hartu nahi dutenek udalaren erregistro orokorra erabil dezakete edo bestela *berdintasuna@lasarte-oria.eus* helbide elektronikoa idatzi behar dute. Helarazi nahi dituzten ekarpenak aurkezterakoan euren buruak edo erakundea zein den zehaztu beharko dute.

Herritarren eta eragileen parte hartzearekin udalak osatu nahi duen araudiak zehaztuko ditu gunearen antolaketa, funtzionamendua, sarbidea eta erabilera, baita bertan garatuko dituzten jarduerak, programak eta zerbitzuak ere.



Emakumeen Etxearen ataria. TXINTXARRI





Hipodromo etorbideko zenbait edukiontzi. TXINTXARRI

GIZARTEA

Zergak eta tasak % 2,9 igoko ditu udalak 2027an eta hondakinen bilketarena, izoztu

KPIaren azpitik eguneratuko ditu zergak eta tasak Lasarte-Oriako Udalak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 2027rako ordenantza fiskalak onartu ditu berriki aurrera eraman duen ezohiko osoko bilkuran. Ordenantzek zehazten dute udal zergak eta tasak oro har % 2,9 eguneratzea, bi salbuespen nagusirekin: Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ) eta zabor bilketaren tasa; izoztu egingo dituzte horiek. Eguneratze hori prezioen igoeraren azpitik dago, izan ere, argitaratutako azken datuen arabera, 2026ko irailean Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) % 5ekoa izan zelako Euskadin, eta % 4,3koa Gipuzkoan.

Hori horrela, herritarrei eskaintzen zaizkien udal zerbitzuen kalitateari eusteko beharrezko baliabideak bermatu nahi ditu udalak, besteak beste, espazio publikoen mantentze eta garbiketa zerbitzuetan eta kultura, kirol eta gizarte zerbitzuetan. Hori guztia, udal kontuen oreka mantentzeko eta zergen eta tasen eguneratzeak familien ekonomian neurriko eragina izateko helburu.

Hobariak eta izapide errazagoak

2027rako ordenantza fiskalek udal hobariak eta salbuespenak mantentzen dituzte. Era berean, administrazio izapideak sinplifikatzeko eta herritarrei zerga onura horiek eskuratzea errazteko hobekuntzak ere jasotzen dituzte.

Hala, udalak kasu bakoitzean araudiak baimentzen duen gehieneko hobaria aplikatzeko irizpideari eutsiko dio. Indarrean dauden hobarien artean, energia eraginkortasunarekin eta jasangarritasunarekin lotutakoak nabarmentzen dira. Esaterako, A energia kalifikazioa duten etxebizitzek % 50eko hobaria jaso dezakete Ondasun Higiezinen gaineko Zergan, eta B kalifikazioa dutenek, berriz, % 30ekoa. Era berean, energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistema jakin batzuk dituzten higiezinentzat % 50eko hobariak aurreikusten dira, baita eguzki energia aprobetxatzeko instalazio jakin batzuentzat Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan % 90erainoko hobariak ere, betiere ezarritako baldintzak betetzen badira.

Kalitatezko zerbitzu publikoak eta neurriko fiskalitatea

2027rako ordenantza fiskal bidez, Lasarte-Oriako Udalak "kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzen jarraitzeko konpromisoa" berretsi du, halaber, erakundeak nahi du"herritarren gaineko zerga presioa ahalik eta txikiena izatea". KPIaren azpitik dagoen % 2,9ko eguneratzeak eta OHZa zein zabor bilketaren tasa izoztuta mantentzeak agerian uzten dute udal zerbitzuen kalitatearen eta familien ahalegin ekonomikoaren arteko orekari eusteko borondatea.

2027rako ordenantza fiskalek udal hobariak eta salbuespenak mantentzen dituzte

Udal zerbitzuen "kalitateari eusteko beharrezko baliabideak" bermatu nahi dituzte



Lurraldeko enpresen eta eragileen ahotsak entzun nahi dituzte. BBMANKOMUNITATEA

EKONOMIA

Eskualdeko garapen planean eragile aktibo izateko deia egin dute

Txintxarri

Beterri-Buruntza Mankomunitatean eskualdeko Enplegu eta Tokiko Garapen Plana osatzen ari dira buru-belarri: "Eskualde horretako enpresen lehiakortasuna eta lurraldeko enpleguaren sorrera nahiz hobekuntza sustatzeko proiektua" dela azaldu dute eragile horretako kideek. Benetako beharrei erantzute aldera, azpimarratu dute "funtsezkoa" dela alor horretan inplikatuta dauden aktore guztien ahotsak entzutea. "Datu errealekin" egin nahi dute diagnostikoa eta inkesta bat jarri dute guztien eskura.

Mankomunitatekoek uste dute garapen plana "tresna oso baliotsua" izango dela "langileen, prestakuntzaren, digitalizazioaren, belaunaldien arteko erreleboaren edo talentua erakartzearen arloan enpresek dituzten beharrak antzemateko". Halaber, "eskuragarri dauden baliabide eta laguntza publikoak benetan behar diren lekura bideratzeko" lagungarri izango delakoan daude.

Era berean, gogorarazi dute eskualdeko Enplegu eta Tokiko Garapen Planaren baitan hartzen diren erabakiek eta martxan jartzen diren egitasmoek "eragin zuzena" izango dutela enpresengan. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaie eragile ekonomikoek proiektuan "hasiera-hasieratik" parte hartzea.

POLITIKA

Hauteskunde mahaiak, zozkatuta



TXINTXARRI

Hilaren 29ko hauteskundeetako mahaietan lan egin beharko duten herritarrak nortzuk izango diren erabaki du udalbatzarrak, zozketa informatiko bidez; titularrak eta ordezkoak aukeratu ditu. Deituak izan direnek jakinarazpen ofizialak jasoko dituzte euren etxeetan. Hautatuak izan diren ala ez jakiteko *https://erakundeak.lasarte-oria.eus/Hauteskundeak/index.htm* esteka kontsulta dezakete herritarrek.

KULTURA

Irudimenarekin sortutakoa literaturaren bidez adierazteko garaia iritsi da

Haur, gazte eta helduentzako lehiaketa martxan jarri du Lasarte-Oriako Udalak

Txintxarri

Ideiak eta sentimenduak literaturaren bidez adierazten jarraitzeko deia egin du Lasarte-Oriako Udalak eta horretarako antolatu du jarduera horren 40. edizioa. Batetik, haur eta gazteena, adinaren arabera euskarazko ipuinak eta olerkiak aurkezteko; eta bestetik, helduena, euskaraz nahiz gaztelaniaz poemak eta mikroipuinak aurkez ditzaten. Parte hartzeko epea berriki zabaldu dela iragartzeak esan nahi du sari banaketa ez dutela hilabete honetan egingo, datorren urteko apirilaren 23an baizik.

Hori horrela izanik, parte hartzeko asmoa dutenek denbora dute lanak prestatu eta aurkezteko. Haur eta gazteen mailan aritu ahalko dute udalerrian bizi edo ikasten duten 16 urtera arteko pertsonek. 2017an edo geroago jaiotakoak A taldera bideratuko dituzte; B multzoan ariko dira 2014tik 2016ra arte sortutakoak; eta, azkenik, C kategoriara bideratuko dituzte 2011 eta 2013 urte artekoak direnak. Lan guztiek izan beharko dute euskaraz idatzitakoak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak.



Iazko lehiaketako sari banaketa. TXINTXARRI

Pieza guztien gaiak zein neurriak libreak izango direla zehaztu dute antolatzaileek.

Helduen kategorian, berriz, 16 urte edo gehiago dituztenek parte hartu ahalko dute, betiere Europar Batasuneko herrialderen batean bizi badira. Euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez ditzakete lanak, muga hauek gainditu gabe: 300 lerroko olerkiak eta 1.500 hitzeko mikroipuinak (zuriuneak barne). Bai gaiekin bai neurriekin jolasteko aukera izango dute, biak ala biak baitira libreak. Partaide bakoitzak lan bakarra aurkez dezake modalitate bakoitzean, argitaletxeren batekin konpromisorik ez badu eta ebazteke dagoen beste lehiaketa batera aurkeztu ez bada. Aurreko edizioetan sariren bat irabazi dutenek ezin izango dute berriro parte hartu saritutako modalitate berean.

Lanak aurkezteko jarraibideak

Maila bakoitzeko idazleek PDF formatuan aurkeztu beharko dituzte lanak, A4 tamainan, Times New Roman letra motarekin; 11 puntuko letra eta tarte bikoitza erabili beharko dute. Fitxategiak helbide elektronikoz bidali beharko dituzte. Haur eta gazteen lanak, *literatur.haurgazte2026@lasarte-oria.eus*-era. Helduenak, euskarazkoak badira, *literatur.lehiaketak2026@lasarte-oria.eus*-era; eta, gaztelaniazkoak izatekotan, *concursos.literarios2026@lasarte-oria.eus*-era. Horretarako azken eguna abenduaren 22a izango da, asteartea.

Esan bezala, sariak datorren urteko apirilaren 23an banatuko dituzte. Diplomez gain, kopuru ekonomikoak jasoko dituzte idazle saridunek. Mailaren arabera, gehiago ala gutxiago.



Hurrengo urteko Inauteri asteburu luzea otsailaren 5etik 9ra artekoa izango da. TXINTXARRI

GIZARTEA

Bost gai proposatu dituzte datorren urtean herria mozorrotzeko

Txintxarri

Hilaren 12ra arteko prozesu parte hartzailea abiatu du udalak, hurrengo urteko Inauterietako gaia zein izango den erabakitzeko. Konpartsekin adostutako bost proposamen egin dituzte: *1920ko hamarkada, Greziako eta Erromako jainko-jainkosak, Kirolak, Munduko jaiak* eta *Zirkua*. Botoak erakundearen webgunean (*lasarte-oria.eus*) edo herrian zehar jarritako zenbait postontzitan eman ditzakete herritarrek.

Iritzia aurrez aurre ematea nahiago dutenek udalaren bost eraikin hauetako postontzietara joan behar dute: Emakumeen Etxea, Gaztelekua, Maialen Chourraut kiroldegia, Manuel Lekuona Kultur Etxea edo udaletxe zaharreko arkupeak. Boto txartelak ez dituzte etxez etxe banatuko eta aipatu toki horietan jarriko dituzte herritarren eskura. Betetzerakoan, bost gaietako bat aukeratu eta NAN zenbakia zein den adierazi beharko dute.

Botoa ematearena udalak sustatutako parte hartze prozesuaren hirugarren eta azken fasea da. Aurrenekoan 142 proposamenekin abiatu ziren eta horietatik 68 aukeratu zituzten. Bigarren fasean konpartsekin elkartu ziren eta gai horiek guztiak helarazi zizkieten, bost aukera zitzaten.

KULTURA

Gogotik gozatu dute garagardo azokaz



TXINTXARRI

Garagardo azoka ospatu zuen Palomo Linares Elkarteak urriaren 31n, larunbatarekin, egun osoz. Zumaburu auzoko egoitzan elkartu ziren bertako bazkide diren 50 pertsona, baina bikoteak edota lagunak ere. Menu goxo hau dastatu zuten: saltxitxak, txerri ukondoa, patata minak, postrea eta kafea. Jaki horiek guztiak lau garagardorekin ezkondu zituzten egunean zehar.

Eguraldi bikaina lagun, egoitza barruan bakarrik ez, kanpoaldean kontu kontari aritu ziren garagardo azokara bertaratu zirenak. Tartetxo bat ere hartu zuten TXINTXARRI-ren kamera aurrean jarri eta topa egiteko.

KULTURA

Garai zaharrak gogoratzeko




TXEMA VALLES

Lasartearra elkartekoek futbol taldea izan zuten 1970etik 1982ra. Denboraldi horietan guztietan aritutako jokalari ohiak elkartzeko eta garai zaharrak gogoratzeko bazkaria egingo dute hilaren 20an, Erribera kaleko egoitzan, 14:00etan. Izena eman nahi dutenek 13a baino lehen izena eman behar dute Patxi Larrañaga harategian edo 670 43 04 94 zein 629 53 63 20 telefono zenbakietara WhatsApp mezu bat bidalita.



"Bizitza duinen alde" borrokatzen jarraitzeko prest daudela adierazi dute pentsiodunek. LASARTE-ORIAKO PENTSIODUNEN TALDEA



Greba komiteko zenbait kide, ekintzarako kartelak prestatzen. GREBA KOMITEA

GIZARTEA

Hilaren 11ko greba orokorrarekin bat egin dute herriko pentsiodunek

Egun hori prestatzeko komitea eratu dute eta gaur arratsaldean (hilak 6) elkartuko dira Oriarte Landaberri institutuan, 18:30ean. Kartelak itsasten hasi dira eta aurreratu dute jarduera egitaraua antolatzen ari direla

Txintxarri

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak urri erdialdean babestu zuen datorren asteko asteazkeneko (hilak 11) greba eta apurka-apurka udalerrietako eragileak ere batzen ari dira. Lasarte-Oriako taldeko kideek hilaren 2an irudikatu zuten hori, agerraldia eta kantaldia eginda. Nazio mailako koordinakundeak bere garaian adierazitakoak bere egin zituzten: "Aberastasuna era ekitatiboan banatzea, gizarte eta lan eskubideak, eta pentsio, soldata eta etxebizitza duinak bermatzea helburu duten borroka guztiak defendatzen ditugu eta bizitza duinen alde borrokan jarraituko dugu".

Xumela koruko zuzendari Josu Txapartegi Txapas zarauztarrak gidatu zuen agerraldiaren osteko kantaldia. Besteak beste, *Txanton Piperri* abestu zuten.

EHNE, ELA, ESK, Etxalde, LAB eta Steilas sindikatuek deitu dute greba orokorra, testuinguru honetan: azken urteetan izugarri igo dira etxebizitzen prezioak Hego Euskal Herrian, erosteko ala alokatzeko izan. Hori horrela emantzipatzeko zailtasun gero eta gehiago dituzte gazteek, etxebizitzak erosi nahi dituztenen soldatak ez dira bizitokien salneurriak bezainbeste igo eta merkatuan horiekin espekulatzeko produktu bilakatu dira. "Larrialdi egoera" sortu du horrek eta horregatik deitu dute lanuztera.

Egun horretan eskatuko dituztenen artean neurri hauek daude: prezioak legez kontrolatzea eta jaistea, merkatua eremu tentsionatu gisa izendatuta eta espekulazioa mugatuta; etxebizitza parke publikoa handitzea, batez ere alokairu sozialekoak; alternatibarik eskaini gabeko etxegabetze guztiak bertan behera uztea; edota etxebizitza eskubide unibertsal gisa bermatzea.

Lasarte-Orian greba komitea eratu dute eta egun horretarako ekimen sorta prestatzen ari dira. Berriki lanuztea iragartzeko kartelak itsatsi dituzte herrian barrena eta iragarri dute gaur bertan (hilak 6) bilduko direla Oriarte Landaberri institutuan, 18:30etik aurrera. Herritar oro gonbidatu dute parte hartzera.



Hauteskundeetako propanda paneletan ere itsatsi zituzten afixak. GREBA KOMITEA

Etxebizitza eskubidearen aldeko eta espekulazioaren aurkako greba izango da 11koa

Eskatuko duten neurrietako bat prezioak jaistea eta legez kontrolatzea izango da

Lantokiak husteko eta kaleak betetzeko deia

Euskal gehiengo sindikalak (EHNE, ELA, ESK, Etxalde, LAB eta Steilas) eta etxebizitza sindikatuek hilaren 11ko greba orokorrera batzeko egin diete herritar guztiei, "etxebizitza eskubidea bermatu dadin eskatzeko eta espekulazioari ezetz esateko". Langileen pobretzearen aurka, soldatak igotzearen alde eta "denen eskubideak bermatuko dituzten kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalen defentsan" ere hartuko dituzte kaleak, lantokiak hustuta.

Etxebizitzarenak "bermatutako eskubide publikoa" izan beharko lukeela aldarrikatu dute, "osasungintza eta hezkuntza halakoak diren neurri berean". Hori erdiesteko oztopo nagusia "ondasun horiekin egiten den negozioa" dela salatu dute. Zehazki, "espekulazioa eta errentismoa" jarri dituzte jomugan.

Kalitatezko etxebizitza pertsona guztientzat bermatzea posible izan dadin, "erroko hiru aldaketa" behar direla adierazi dute: espekulatzaileak espropiatzea, jardun espekulatiboaren debekua eta etxebizitzen antolaketa justua, langilearen beharren araberakoa izango dena. Horiek gauzatu bitartean bi neurri hauek hartzea exijitu dute: etxegabetze guztiak etetea eta bizitokien alokairuen prezioak jaistea. Ildo horretatik, premiazkoa iruditzen zaie Espainiako Gobernuaren zein euskal erakunde guztien jardunbidea jomugan jartzea, "etxebizitzaren negozioa indartzen duten politiketan duten ardura agerian uzteko".

Hori guztia esanda, hilaren 11n lantokiak husteko eta kaleak hartzeko deia egin dute lanuzte orokorraren deitzaileek, baita egun horretarako antolatu dituzten manifestazioetan parte hartzeko ere. Eibarko eta Gasteizko mobilizazioak 12:00etan abiatuko dira; Bilbo, Donostia, Iruñea eta Tuterakoak, berriz, ordu erdi geroago.

Greba komiteak eratu dituzten herri eta hirietan bestelako ekimenak antolatzen ari dira hilaren 11rako, baita Lasarte-Orian ere. Hurrengo egunetan emango dute horien guztien berri.



GurasLandiako lagunekin batera egin dute sudurgorriek 'Musu bete urte' azken lanaren aurkezpena. TXINTXARRI



Leire Billbao idazlea eta Maite Mutuberria marrazkila ere bertan izan dira. TXINTXARRI

KULTURA

Sudurgorriek erakutsi dute ziztu bizian igarotzen dela musuz betetako urte bat

'Musu bete urte' lana kaleratu berri dute Pirrtx, Porrotx eta Marimototsek eta hori jendaurrean aurkezteko agerraldia egin dute, berriki. GurasoLandiako familiak ere bertan izan dira, baita Leire Bilbao idazlea eta Maite Mutuberria marrazkilaria ere

Txintxarri

Musu bete urte proiektu berria aurkeztu dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots sudurgorri lasarteoriatarrek. Antonio Mercero aretoan egin dute agerraldia eta horien ondoan izan dira GurasoLandia egitasmoko familiak eta begiraleak.

Pailazoen ondoan izan da Leire Bilbao idazlea ere, hain zuzen ere, pailazoen abentura berriaren lehen urratsa berak idatzi eta Maite Mutuberriak ilustratutako ipuin berria baita; azken hori ere bertan izan da. Musuen unibertsoa duabiapuntu lanak, eta galdera, jakin-min eta jolasez beteriko bidaia proposatzen die etxeko txikienei: zer abiadura dute musuek? Zer zapore du marigorringo baten musuak? Musuak lapurtu daitezke? Nora doaz airean geratzen diren musuak? Haurrei, familiei eta sudurgorriak maite dituen orori zuzenduta dagoen proiektua dela ere nabarmendu dute protagonistek.

Hori horrela, honako adierazpenak egin ditu Bilbaok proiektuaren aurkezpen agerraldian: "Badira denbora neurtzeko modu ezberdinak. Erlojuen segundo, minutu eta orduekin zerikusirik ez dutenak. Kotxean bidaia luze batean leihatilatik begira zenbatzen den denbora, itsasoan murgil egin eta uretan arrainen artean igarotzen dena, hodeiak eta zuhaitzetako hostoak kontatzen ihes doana edo ametsetan ematen dugun a. Batzuetan azkarregi eta beste batzuetan geldoegi joaten da denbora, baina maite dituzunen artean gozoago doa da beti. Musuz bete ditzagun udazkena, negua, udaberria eta uda. Musuz urtea eta bizitza. Musuekin gure lurra ere biraka jartzen delako, kantuan eta dantzan. Eta gu berarekin". Hori horrela, musuz betetako urte bat zeinen bizkor igaro daitekeen ikasi dute bertaratu diren haurrek. Ipuina ere irakurri diete aretoan bildutako haur eta haien senideei sudurgorriek eta Leire Bilbaok, eta katuaren poesiatxoa ikasteko aukera ere izan dute gero.

Musua naturari eta kulturari

Gure kulturak naturarekin betidanik izan duen harreman estuaz ere mintzatu dira protagonistak. Urteko zikloek markatzen duten bizimoduaz, ospakizunez eta ohiturez aritu dira, hala nola, Inauteriez, Santa Agedaz, udako solstizioaz, eta abar. Hala, azken urteotan, sarritan naturari bizkar emanda bizi garela ere ohartarazi dute pailazoek, eta horrekin batera gure ohiturak ere aldatzen ari direla aipatu dute. Hori horrela, *Musu bete urte* proiektuak ohitura horiek gurera ekarri, biziberritu eta ospatzeko gonbita egin nahi du, gaur egungo begiradatik eta pailazoen umore, musika, dantza eta jolasen bidez.

Urtaro bakoitzak bere musua izango du, eta pailazoek urte oso bat egingo dute naturarekin eta gure kulturarekin batera biraka. Ikuskizunean musika, antzerkia eta tradizioa uztartuko dituzte, Marigorringoren laguntzarekin urtaroz urtaro munduak biraka segi dezan.

Katxiporreta Kooperatiba arduratu da ikuskizunaren gidoiaz eta produkzio artistikoaz Izaskun Forcadak sortu ditu koreografiak eta soinuaz eta bestelako efektuez Garikoitz Aranzabal arduratuko da. Aktore lanetan, berriz, Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta Marigorringo arituko dira.

Hilaren 20an erakutsiko du lehen aldiz pailazo taldeak proiektu berria. Eskoriatzan izango da lehen emanaldi hori, eta hortik aurrera etorriko dira Euskal Herriko bestelako herri eta lekutan aurrera eramango dituztenak.

Kantu eta dantza

Ezin zen bestela; oraingoan ere pailazoak tarteko kantuan eta dantzan ere egin dute bertaratu diren haurrek. *Epo itai tai ye* eta *Ikusi mendizalek* abestiekin astindu dituzte gorputzak, giro eder bezain alaiean.

Liburu bana jaso du opari familia bakoitzak etxeratu aurretik. Pozik agurtu dute elkar.

GIZARTEA

Kozinatu eta afaldu bitartean elkar hobeto ezagutzeko ekimena

Txintxarri

Bizi-Lagunak eragile sortu berriko kideek iragarri dute *Su artean* izeneko topaketa egingo dutela hilaren 19an Semblante Andaluz elkartearen egoitzan (Golf plazan dago). "Lasarte-Oria oso anitza da: Euskal Herrian zein atzerrian jaiotako herritarrak bizi gara. Elkarrekin kozinatzeko eta afaltzeko gonbitea duzue hau, elkar ezagutu eta elkarrengandik ikasteko", jakinarazi dute. Doako ekimena da eta bertaratu nahi dutenek esteka honetan izena eman beharko dute: *https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdcQmJsuMjkfWn6eJQ5GZBwOVqtMWkd14A-Bo9xX-08ye0e0Pw/viewform*. Helduak ez ezik, haurrak ere beso-zabalik jasoko dituzte eta beraientzako ludoteka egingo dute.

17:30ean izango da Semblante Andaluz elkartearen egoitzan biltzeko hitzordua. Harrera egin ostean sukaldaritza tailerra aurrera eramango dute. 18:15ean ongietorri ekitaldia egingo diete afaltiarrei eta haurrak ordu laurden geroago eseriko dira mahaiaren bueltan, bapo jateko. 19:00etan ludotekan primeran pasatzeko aukera izango dute txikiek eta bitartean afaldu egingo dute helduek. Azkenik, 20:15ean elkar agurtuko dute ekimenean parte hartuko duten pertsona guztiek.



Ekimenaren kartela. BIZI-LAGUNAK

Urri erdialdean aurkeztu zuten Bizi-Lagunak ekimena. Lasarte-Oriara bizitzera datozenei harrera egin eta horrek dakarren prozesuan sare iraunkor eta jasangarria sortzeko beharra ase nahian eratu dute elkarte hori. "Gure helburua ez da soilik pertsona migratzaileei harrera egitea, baizik eta herrian dagoen aniztasunari erantzutea", nabarmendu dute.



Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak kultur etxean aurrera eramandako emanaldi baten artxiboko irudia. TXINTXARRI

KULTURA

Zilar urtea ospatzeko jarduera ugari iragarri ditu Kukuka eskolak

25. urte bete ditu aurten antzerki eta dantza eskolak. Hori ospatzeko, askotariko jarduerez betetako egitaraua prestatu dute. Ekainera arteko eskaintza egin dute eta asteburu honetan izango da hil honetako hitzordua

Txintxarri

Pozarren dira Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako kideak; 25 urte bete ditu eragileak.

Euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, "euskararen erabilera sustatzeko" sortu zen Kukuka; hatapenetatik izan du helburu euskaraz bizitzeko, erabiltzeko eta partekatzeko espazioak sortzea, baina hori baino askoz gehiago ere bada Kukuka: "Antzerkiaren eta dantzaren bidez, adierazteko, sortzeko, esperimentatzeko eta elkarrekin ikasteko gunea. Gorputzaren bidez komunikatzeko, emozioak lantzeko, norberaren sormena garatzeko eta besteekin harremanak eraikitzeko espazioa".

Mende laurdeneko ibilbidea ospatzeko, ekainera arteko egitarau eder bezain erakargarria iragarri du eragileak. Urriaren 15ean egin zuen horren berri emateko agerraldia, Manuel Lekuona Kultur Etxean; urtemugaren gainean hitz egin zuen, baita urte horietan guztietan urratutako bidearen errepaso labur bat egin ere, eta ospatzeko prestatu dituen jardueren berri ere eman zuen. Askotariko adin eta gustientzako ekimen sorta proposatu die lasarteoriatarrei ekainera bitarte, eta horietan prte hartzeko gonbita ere luzatu diete. Ondoko taulan kontsulta ditzakezue hitzorduak egunez egun. Horietako askotan parte hartzeko aurrez izena ematea derrigorrezkoa da; hori noiz eta nola egin, ordea, aurrerago zehaztuko du eragileak.

Egitaraua

Azaroaren 7a, 11:00etatik 12:00etara
Bikoizketa tailerra Binahiren eskutik. Igone Gonzalezek dinamizatuko du saioa, eta 10 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Bertan aritzeko aurrez izena ematea derrigorrezkoa da.

Abenduaren 19a,
Bilaka Kolektiboaren eskutik bi jarduera egingo dituzte. 10:00etatik 12:00etara dantza tailerra eskainiko dute kultur etxean. Bertan aritzeko aurrez izena ematea ezinbestekoa da, baita euskal dantzen jakintza izatea ere. Hala, 18 urtetik gorako helduei zuzenduta dagoela ohartarazi dute antolatzaileek. Tailerra arratsaldean egingo duten ikuskizunaren gainekoa izango da. 17:00etan izango da azken hori, Okendo plazan.

Urtarrilaren 23a, 11:00etan
Barreterapia tailerra aurrera eramango dute kultur etxean. Manex Beristainek gidatuko du saioa, eta bertan parte hartzeko izena eman beharko dute interesdunek.

Otsailaren 5ean, 19:00etan
Anarru Dokumentala proiektatuko dute kultur etxean. Hizlari gisa bertaratuko da ikus-entzunezkoaren egile Anartz Ormaza. Gonbidapenak hartzea beharrezkoa da. Gerta liteke data hori aldatu behar izatea, baina hala bada, aurrerago emango dugu horren berri.

Martxoaren 13a, 18:00etan
Kultur etxean Bizipozaren festa egingo dute Porrotx eta Mari Motots-ek gidatuta. Bertaratzeko gonbidapenak hartzea beharrezkoa da.

Apirilaren 10a, 12:00etan
Bi jarduera aurrera eramango dituzte. Andoni Magoaren emanaldiaz gozatu ahal izango dute herritarrek; *Magia Zapatiletan* ikuskizuna eskainiko du. Horrez gain, antzerki topaketak ere egingo dituzte. Bi hitzordu horiek Okendo izango dira.

Apirilaren 29a, 19:00etan
Nazioarteko Dantza Eguna ospatuko dute Okendo plazan.

Maiatzaren 8an, 10:00etatik 12:00etara
Dantza Mugimendu Terapia eta Dantza familian saioak egingo dituzte Oihane Vicenteren eskutik. Kultur etxean izango da saioa eta izen ematea derrigorrezkoa da.

Maiatzaren 29an, 20:00etan
Kukukaren ikuskizun berezia egingo dute. Kultur etxean izango da eta sarrerak hartzea derrigorrezkoa dela ohartarazi dute antolatzaileek.

Ekainaren 7ko astean
Kukuka astea aurrera eramango du antzerki eta dantza eskolak. Kukukako taldeek urtean zehar landutako emanaldiak erakutsiko dituzte aste horretan, urtero egiten duten moduan.

GIZARTEA

Rikardo Arregi sarietako finalista, Garces eta Mendiorozen dokumentala

Txintxarri

Andoaingo Udalak berriki iragarri ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien zortzi finalistak. Urterolez, kazetarita lan bat eta komunikazioko beste bat saritzen dituzte, eta hain zuzen ere, hautagai guztien artean, Kazetaritza sarien finalistetako bat da Idoia Garzes eta Inge Mendioroz herritarrek ondu duten *Lurdes Iriondo, ez gara alferrik pasako* dokumentala. Poriektu horri dagokionez, epaimahaikideek adierazi dute dokumental "zorrotza" dela, eta "memoria historikoaren berreskurapena, ikuspegi kritikoa eta balio sozial handiko gai baten trataera" uztartzen dituela, besteak beste.

Hilaren 20an jakingo da zeintzuk lan diren sarituak; egun horretan izendatuko dituzte garaileak. baita sariak banatu ere. Ikusi beharko da zer gertatzen den, baina, bien bitartean, finalista izendapena nola jaso duten kontatu diote TXINTXARRI-ri egileek. "Ilusio handia" egin diela aitortu dute, baita berria "sorpresaz" hartu dutela ere. Garaile izan edo ez, honaino, hots, finalista izatera heldu izana "sekulakoa" da bikoarentzat. Umiltasunez adierazi dute hautagaitza "ondo egindako lanaren erakusle" dela.



Mendiorozen eta Garzesen artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

GIZARTEA

Urteko gau beldurgarriena era desberdinetara ospatu dute herritarrek

Gau Beltza egin dute Zabaletan; Sasoetan, berriz, Halloween festa burutu dute

Txintxarri

Urriaren 31 izan ohi da urteko gau beldurgarriena baina, izututa etxean geratu beharrean, lasarteoriatar asko atera ziren kalera, mozorrotuta.

Zabaletako auzoan euskal tradizioari heldu zioten eta Gau Beltza ospatu zuten. Hasteko, ipuin kontaketa egin zuten Basotxo plazako egoitzan. Jarraian, beldurrezko ibiladia, auzoan barrena. Bukatzeko, txokolate jana eta pintxo-potea. Dozenaka lagun elkartu ziren eta argi erakutsi zuten urteko edozein garaitan badakitela festa bat antolatzen, baita beldurrezkoak ere.

Arimak eta bestelako izakiak ez ziren Zabaletan soilik elkartu, baita Sasoetan ere. Auzo horretako Jaizkibel plazan Halloween ospatzeko festa aurrera eraman zuten Dulce Tentacion gozoki dendak eta Producciones Oriarte ikus-entzunezko enpresak. Bertaratu zirenei txokolate beroa eman zieten eta ordubetera mozorro lehiaketa egin zuten. Horrez gain, LOZET elkartearen erraldoi eta buruhandiak animatu ziren enparantzan barrena kalejiran ibiltzera.

Txokolate beroa banatzeagatik bildutako dirua ASPANOGI Gipuzkoako Haur Minbizidunen Senideen elkarteari emango diote antolatzaileek.



Dulce Tentacion gozoki dendaren ataria, Halloween egunean. TXINTXARRI



Ipuin kontaketa saioa egin zuten Zabaleta auzoko lokalean. ZABALETA AUZOLAN



Beldurrezko ibilbideari amaiera emateko sua piztu zuten. ZABALETA AUZOLAN

KULTURA

Poesiatik eta musikatik ondutako ikuskizuna ekarri dute kultur etxera

'Manttalingo alaba' ikuskizunaz gozatu dute lasarteoriatarrek

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Mikel Etxaburu Osa idazle ondarroatarrak ondutako *Manttalingo alaba* poema liburua musikatu, eta ordubeteko emanaldia egin zuen hainbat musikariren laguntzarekin batera urriaren 30ean, ostiralez.

Oroitzeko eta aldarrikatzeko helburua du Osak idatzitako poema liburuak. Izan ere, Saturrarango kartzelan giltzapetuak izan ziren 4.000 bat emakumeak gogoratu eta aitortu nahi izan ditu ondarroako idazleak.

2024an publikatu zituen olerkiak Pamiela argitaletxearen eskutik. Gerora, sorta hori oinarri, emankizun musikatua eraiki du egileak hainbat artistarekin batera, eta Manuel Lekuona Kultur Etxean eskaini zien lasarteoriatarrei poesia, abestiak eta musika uztartuta; Jon Gardokik jotako akordeoiaren eta Irina Alvarezek interpretatutako biolinaren doinuez baliatu zen, baita Nerea Zuloagak kantuz abestutako testuez ere. Idazleak berak ere parte hartu zuen errezital musikatu aren emanaldi horretan.





Hitzak eta musika uztartzen dituzte 'Manttalingo alaba' emanaldian. TXINTXARRI

KULTURA

Zeluloidearen historia musikala




TXINTXARRI

Zinema Paradise izeneko ikuskizuna eskaini zuten Ivan Azkaratek eta Lide Hernandok, urriaren 24an, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Zinemaren historiako abesti mitikoenekin egindako errepertorioa interpretatu zuten zenbait musikari finez osaturiko bandarekin batera. Kantu bakoitzaren filmarekin akordatuta, publikoak biziki gozatu zuen kontzertu horretaz.



Dozenaka pertsona bertaratu ziren Antonio Mercero aretoko hitzaldira. TXINTXARRI



Jesus Uzkudun Illarramendi (eskuinean), azalpenak ematen. TXINTXARRI

GIZARTEA

"Gero eta gehiago" izateko deia, "beste aldera begiratzen" jarrai ez dezaten

Buruntzaldean azkenaldian amiantoari lotutako gaixotasun kasuak azaldu direla-eta, substantzia horren zein beste batzuen eraginaz mintzatu da Jesus Uzkudun Illarramendi aktibista. Asviamie elkarteak antolatu du solasaldia

Txintxarri

Amiantoak eta bestelako substantzia batzuek minbizi kasuen ugaritzean eragina dutela aldarrikatzen du Jesus Uzkudun Illarramendik. Asbestosia dauka berak, amianto zuntzak arnastearen ondorioz pairatzen duen biriketako eritasuna. Hitzaldia baliatu du deialdi hau egiteko: "Guk ez badugu ahotsa altxatzen inork ez du egingo gugatik. Gero eta gehiago bagara, orduan eta zailagoa izango zaie enpresei eta agintariei beste aldera begiratzen jarraitzea".

Dozenaka pertsona bertaratu ziren Antonio Mercero aretora urriaren 28an, ASVIAMIE amiantoaren biktimen Euskadiko elkarteak antolatutako hitzaldira. Illarramendik hartu zuen hitza, lan osasunaren aldeko ekintzaileak, egoera zer-nolakoa den argi eta garbi azaltzeko. Aurreneko unetik lotu zituen amiantoa, beruna eta lan inguruneetan topa daitezkeen substantzia gehiago minbiziekin eta bestelako gaixotasunekin, hala nola berak pairatzen duen asbestosia edota biriketako fibrosia. "Euskal Herrian 8.000 bat heriotza eragiten dituzte urtean lanarekin zerikusia duten minbiziek eta Gizarte Segurantzak 119 besterik ez ditu aitortzen. Izugarria da aldea".

Horri lotuta eta horrelako kasuek izan duten bilakaera ikusita, aitortu zuen "gaizki pentsatzera" ohituta dagoela eta tamalez asmatu egiten duela: "Gizarte Segurantzakoek ahalik eta gehien luzatzen dituzte gure eskaerek eragindako prozesuak, amaitu baino lehen hil gaitezen". Horren aurrean, nabarmendu zuen geldi eta isilik geratzea ez dela aukera bat: "Ez bagara mugitzen eta ez badugu ezer egiten ez dugu inolako aukerarik izango. Prest nago nigana etortzen diren pertsona guztiei tramiteak egiten laguntzeko eta amiantoak kaltetutakoen zerrendan sartzeko". Jakinarazi zuen bera jubilatu zenean 5.000 pertsona zeudela Euskal Autonomia Erkidegoko multzoan. Bada, iaz 18.230 ziren eta adituak aurreikusten du urtea amaitzerako 19.000 baino areago izango direla. "Gero eta gehiago bagara, orduan eta zailagoa izango zaie beste aldera begiratzen jarraitzea". Norabide horretan, esan zuen langileek ez dietela utzi behar beraietaz barre egitea: "Eragindako kalteak ordaindu behar dituzte".

Bi dekretu

Gaur egungo egoera lazgarria izanik ere, etorkizuna argitzen lagundu dezaketen bi dekreturen berri eman zuen Illarramendik. Joan den ostiralean sartu zen indarrean horietako bat: "Amiantoak eragindako gaixotasun aitortuen zerrenda zabaldu dute eta aitortzen hasi dira zenbait minbizi, hala nola urdailekoa edo hesteetakoa. Izan ere, substantzia hori arnastu bakarrik ez, irentsi ere egin izan dugulako ogitartekoak jaterakoan, esate baterako".

Kontatu zuenez, beste dekretuan berunak eragindako gaixotasunei buruzko kontuak jasoko dituzte. "Substantzia horrekin kontaktuan egote hutsa kaltegarria izan daiteke osasunerako eta arazoak eragin ditzake gizakion birsortzeko gaitasunean, baita gure ondorengoei zenbait gaixotasun transmititzerakoan ere".

18.230

KALTETUTAKO PERTSONA

Amiantoak kaltetutako pertsonen zerrendan kopuru hori zegoen iaz (EAEn)

Jesus Uzkudun Illarramendi: "Ez bagara mugitzen, ez dugu inolako aukerarik izango"

POLITIKA

Helmuga eskuratzearen alde mobilizatu dira erdigunean barrena

Txintxarri

Dozenaka herritarrek bat egin zuten Sare Herritarrak antolatutako mobilizazioarekin urriaren 30ean. San Pedro elizatik abiatu eta Okendo plazara ailegatu ziren. Manifestua leitu zuten han.

Adierazi zuten euskal presoen, iheslarien eta deportatuen auziak egun eta aste "gorabeheratsuak" bizi dituela. Horren erakusletzat jo zuten azkenaldian zaintza epaitegitik eta Entzutegi Nazionaletik emandako errekurtsoak. Euren esanetan, "mendekutik" dute erabaki horiek, eta inolako oinarri juridikorik ez. Era berean, salatu zuten egoera "gertuen eta hobekien" ezagutzen duten profesionalei "muzin egin" eta euskal gizartearen beharretan islatutako konponbidea oztopatzen dihardutela.

Gogoratu zuten ETAk bere jarduera eten zuela hamabost urte bete direla, eta "anakronikotzat" jotzen dituztela azken asteotako "erregresioak". Horrekin batera, berretsi zuten "elkarbizitza agertokiak helburu, konponbidearen eta bakearen aldeko lanen eta neurrietan" jarraitzen dutela. Gainera, aintzat hartu zuten oinarri juridikorik gabeko eta mendeku gosez hartutako erabakiek "euskal gizartearen nahiaren aurka" lerratzen direla.



Manifestariak, Elizatze plazan, ibilbideari ekin aurretik. TXINTXARRI

HEZKUNTZA


Munduari begira jarri dira Oriarte Larrekoetxeko ikasleak

Munduko Gatazkak irakasgaiko taldea - Txintxarri

Hankaz gora dago mundua eta edonon gertatzen ari dena ulertu ahal izateko beharrezkoa da ongi informatzea, ikuspuntu kritikoa garatzeko baliabideak eskuratzea eta norberaren iritzia argi azaltzeko gai izatea. Hori guztia (eta gehiago) lantzen ari dira Oriarte Larrekoetxe institutuan ikasten duten 1. Batxilergoko hamalau ikasle, Nora Muñoa Guenaga irakaslearekin batera, Munduko Gatazkak izeneko irakasgaian.

Gaur egun pil-pilean dauden gatazka ugari landu dituzte eta horiek testuinguruan jartzeko atzera ere begiratu dute asteartetan eta ostiraletan egiten dituzten saioetan. Teoria barneratuta, praktikara eraman dute ikasitakoa eta hamalau iritzi artikulu prestatu dituzte, zazpi astetan TXINTXARRI aldizkariaren paperezko orrietan zein txintxarri.eus webgunean argitaratuko ditugunak. Ikasturte hasieran gurekin jarri ziren harremanetan lankidetza egitasmo bati ekitea posible zen ala ez aztertzeko, eta, datozen asteetan ikusiko (eta irakurriko) duzuenez, pozarren ekin diogu proiektuari guztion artean.

Ceutako krisi humanitarioa eta Gerra Hotzaren eraginez Afganistanen gertatzen ari dena (bertako emakumeengan foku berezia jarrita) landu dituzte Aratz Otaegik eta Eider Redondok, iritzi artikulu sakon bezain interesgarriak idatzita.



Munduaren egoeraz, grafikoki. ORIARTE

IRITZI ARTIKULUA

Denok gara pertsonak



ARATZ OTAEGI
1. BATXILERGOKO IKASLEA

Gaur egun, munduan dauden ia gatazka guztien oinarria Gerra Hotza eta deskolonizazioa dira. Aurtengo uztailaren 30 eta 31n gertatu zenaren inguruan hitz egingo dut, egun horietan milaka pertsona pasa ziren Marokotik Ceutara. Nire ustez, pertsona hauek ez dira soilik migranteak, bizitza hobea nahi duten pertsonak baizik.

Hasteko, esan beharra dago hau geopolitikari oso lotuta dagoela, bi herrien arteko harremanak baitira. Ceutan gertatutakoa ez da bakarrik migrazioa, honen atzean beste arrazoi ugari daude. Ameriketako Estatu Batuek (AEB) Espainiari Iraneko gerran sartzeko esan zion, baina Espainiak ezetz esan zion. Honen ondorioz, bere aliatu den Marokorekin hitz egin zuen eta presio moduan Ceutara pertsona ugari eramateko esan zion. Marokok hau gehiagotan ere egin du. Mendebaldeko Saharan Martxa Berdearekin, adibidez.

Horren ostean, 72.000 pertsona inguru pasa ziren Marokotik Ceutara. Nahiz eta Ceuta Afrikako kontinentean egon, Espainiaren parte da. Gertaera hori faxismoak asko erabili du migranteekiko dagoen gorrotoa areagotzeko, eta inbasio terminoa da gehien erabili dutena. Beraiek Ceutako jendea defendatuko zutela esan zuten, baina ez zaie Ceutako jendea gehiegi inporta. Haien asmoa inmigranteen aurka egitea da, Torrepacheco-n egin zuten bezalaxe.

> **"Azpimarratu nahi dut inor ez dela bestea baino hobea eta eskubide berdinak eduki behar ditugula"**

Esan beharra dago, egun gutxitara 72.000 pertsona horietatik 70.000 inguru Marokora itzuli zirela. Eta aipatzekoa da 141 pertsona hil egin zirela bizitza hobeago baten bila.

Bestalde, migrazioa globalizazioari lotuta dagoen fenomenoa da. Globalizazioa politikoa, ekonomikoa eta kulturala izan daiteke. Migrazioa mundu guztian gertatzen den zerbait da eta beste modu batera kudeatu beharko litzateke. Migranteak beraien bizitza hobetzea bilatzen dutelako. Beraien egoeran, edozein pertsonak bilatuko luke bizitza hobea.

Ceutan militarrek Marokoko jendea torturatu du, hau faxismoaren adibide garbia da, migranteak deshumanizatu egiten dituztelako. Ez hori bakarrik, poliziak ere migranteak bizi ziren tokietatik bota egin ditu, adibidez, Trampolin hondartza husteko operazioan.

Nire ustez, gobernuak hau gaizki kudeatu du, ez dizkie behar dituzten baliabideak eman, ura eta janaria adibidez. Horren eraginez, baten-batek lapurtu egingo zuen, baina bizirauteko egin zuen, ziur. Nire ustetan, ura eta janaria edozein pertsonaren eskuetan egon behar litzateke. Nire proposamen pertsona hauei lana eta etxebizitza duina bilatzea da.

Laburbilduz, Ceutan gertatutako AEB eta Marokoko gobernuen errua da. Gainera, Espainiak oso gaizki kudeatu du. Nik azpimarratu nahi dudan ideia hau da: denok pertsonak gara, inor ez dela bestea baino hobea eta eskubide berdinak eduki behar ditugula.

IRITZI ARTIKULUA

Afganistan: Gerra Hotzaren biktima



EIDER REDONDO
1. BATXILERGOKO IKASLEA

Gerra Hotza 1945etik 1991ra Amerikako Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren artean egon zen gatazka izan zen. Bi superpotentziek munduan zuten boterea handitu nahi zuten, eta horretarako, beste herrialde batzuen kontrola izatearen beharra ikusten zuten. Afganistan kontrolatu zuten herrialdeen adibide argia da, bi superpotentzien erasoak jasan zituelako.

1979. urtean, Sobietar Batasunak Afganistan inbaditu zuen, gobernu komunista mantentzeko. Amerikako Estatu Batuek, hori ikusita, talde afganiarrei dirua eta armak eman zizkieten komunismoa ezabatzeko. Amerikako Estatu Batuek egin zutena Truman doktrinaren logikan sartu daiteke, eta gainera, ondo atera zitzaien. Izan ere, herrialdearen kontrola talibanek lortu zuten. Talibanak Afganistanen 1990eko hamarkadan sortutako mugimendu islamista dira, eta 1996an herrialdeko gobernuaren boterea hartu zuten lehen aldiz.

Bestalde, Gerra Hotzean herrialdearen interes politikoak garrantzitsuenak ziren, herritarren ongizatearen gainetik. Beste era batean esanda, Afganistan kapitalisten (AEB) eta komunisten (SESB) arteko gatazkaren gerra eremu bilakatu zen, bakoitza haien interesen alde. Hori dela eta, biztanleriaren hazkundeak behera egin zuen, heriotza asko egon baitzen gerra garaian.

> **"Giza eskubideak ez dira galdu behar, zahar dirudunek boterea nahi dutela esaten dutelako"**

2001eko irailaren 11n, Afganistaneko Al-Qaeda talde terroristak Amerikako Estatu Batuen aurka atentatu suizida bat egin zuen, New York-eko World Tarde Center-eko Dorre Bikien aurka. Talde hau 70. hamarkadaren amaieran sortu zen, AEBek finantziatutako talderik ezagunena eta arriskutsuena izan zen, eta gaur egun aktibo jarraitzen dute. Irailaren 11ko atentuaren ondorioz, AEBek Afganistan militarki erasotu eta irabazi zuten.

Afganistaneko emakumeentzako hezkuntzak aurrerapen batzuk izan zituen 90. hamarkadan eta 2000. hamarkada hasieran, eta ikasteko eskubidea zuten. Dena den, 2021. urtean talibanak gobernuaren agintera iritsi ziren berriro eta emakumeek zituzten eskubide asko (guztiak ez esateagatik) kendu zizkieten.

Afganistaneko historiak erakusten du nola nazioarteko esku hartzeek ondorioak ekar ditzaketen, hamarkadetan zehar. Herrialde baten boterea handitzeko sortzen diren borrokek edo gerrek, biztanleen bizitzak arriskuan jartzen dituzte eta ez zaie batere garrantziarik ematen haien ongizateari. Nire ustez, giza eskubideak babestu behar dira eta ez dira galdu behar, zahar boteretsu dirudunek boterea nahi dutela esaten dutelako.

Bukatzeko, gustatuko litzaidake emakumeen egoera aipatzea. Emakume afganiarrek geroz eta eskubide eta askatasun gutxiago dituzte, eta horiei ahotsa eman behar zaie. Telebistak ez duena egiten guk egin behar dugu, hau da, gai honi buruz hitz egin.

ZAZPI ASTETAN MUNDUKO GATAZKAK IRAKASGAIAN ARI DIREN 1. BATXILERGOKO HAMALAU IKASLEEN IRITZI ARTIKULUAK ARGITARATUKO DITUGU; ALE BAKOITZEAN, BI. WEBGUNEKO ATAL BEREZI BATEAN ERE JASOKO DITUGU. HORIEK IRAKURRI AHAL IZATEKO QR KODE HAU ESKANEATU BEHAR DUZUE

ARETO FUTBOLA

Gogor borrokatutako puntuak partidaren amaieran ihes egin die hori-beltzei

Janrablue taldearen aurka 3-5 galdu du Eguzki Arkupe Rehabilitaciones-ek

Txintxarri

Ostiral iluntzeek areto futbol zaporea izaten dute Maialen Chourraut kiroldegiko kantxan. Zaleek gozatutako azken partida Ohorezko Mailakoa izan zen: Eguzki Arkupe Rehabilitaciones eta Janrablue aritu ziren aurrez aurre, 60 minutuen ostean puntuak nork poltsikoratuko. Bi taldeak ale banarekin konformatu beharko zutela zirudienean, kanpokoek bi gol sartu zituzten eta garaipena eraman zuten Tolosara.

Hori-beltzak indartsu hasi ziren eta 8. minuturako 2-0 aurreratu ziren; Aitor Arcok eta Ibai Anguianok zulatu zuten aurkarien atea. Kolpe bikoitz horren aurrean Janrabluekoak ez ziren kikildu eta hiru minutu geroago murriztu zuten aldea. Atsedenaldia iristear zela beste gol bat sartu eta binakoarekin amaitu zen aurreneko zatia.

Bigarrenaren hasiera ez zen horren mugitua izan eta markagailuko aldaketak amaierako minutuetarako utzi zituzten ekipo bateko zein besteko jokalariek. 2-3 aurreratu ziren tolosarrak baina etxekoek ez zuten amore eman eta hiru minuturen faltan berdindu zuten partida. Esan bezala, bazirudien horrela bukatuko zela baina Janrabluek prest zuen dena lehertuko zuen amaierako traka: gol itxurako bi suziri jaurti eta 3-5 gailendu zen azkenean.

Helduen kategorietako beste ordezkariak, Eguzki ISU Leihoakek, 3-2 galdu zuen Lauburu Ibarraren aurka. Nazional Ligako Ohorezko Jubeniletan, berriz, garaipen bikaina erdietsi zuen Eguzki CORPAChef-ek; 3-4 garaitu zuen Gora CD.

Gazteen Mailan 2-3 galdu zuen Eguzki Avenidak, Laskorainen aurka. Kadeteetako bi ordezkariak, berriz, pozarren daude, bitik bi neurketa irabazita: Eguzki Escalerilla taberna 7-2 Orixe Tolosala eta Makax 2-3 Eguzki Urarte Berri izan ziren emaitzak.



Eguzki eta Janrablue taldeetako jokalari bana, baloiagatik lehiatzen. TXINTXARRI

SASKIBALOIA

Ederki eguneratu dute sailkapen taula



TXINTXARRI

Junior Partaidetza kategorian ari den Ostadar SKTren taldeak ezin hobeto eguneratu du sailkapen taula: zegokion jardunaldiko nahiz atzeratutako bateko partidak irabazi zituen, larunbatean bat eta igandean bestea (urriak 31 eta hilak 1). Aurreneko neurketan Plastigaur hartu zuten Maialen Chorraut kiroldegian eta aise irabazi zuten, 72-31. Garaipen horrek emandako indarrak baliatuta, hurrengo egunean 71-50 gailendu ziren Aloña Mendiren aurka. Horiek horrela, orain arte jokatutako lau norgehiagokak poltsikoratu dituzte urdin-beltzek.

Asteburu horretako beste emaitza batzuk: Seniorren 2. Mailan, Mundarro 42-52 Ostadar SKT; eta Kadete Partaidetzan, Albizu Debasket 69-38 Ostadar Urdina eta Amara Oiarso 57-50 Ostadar Beltza.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 7

GORENGO MAILA
- **Danena KE - Ostadar SKT**
  16:00. Elbarrena, Zizurkilen.

GORENGO MAILA, EMAKUMEAK
- **Ostadar SKT - Goierri Gorri**
  17:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN I. MAILA
- **Arrupe Chaminade - Ostadar SKT**
  15:30. Felix Garin, Donostian.

JUBENILEN GORENGO MAILA
- **Ostadar SKT - Añorga KKE**
  17:00. Michelin kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA
- **Beti Ona CD - Ostadar SKT**
  12:30. Beraun, Errenterian.

JUBENILEN 1. MAILA
- **Amaikak Bat - Texas**
  16:30. Errotazar, Deban.

IGANDEA 8

OHOREZKO KADETE MAILA
- **Igeltegi Donostia - Ostadar SKT**
  11:30. La Salle, Donostian.

JUBENILEN 1. MAILA
- **Ostadar SKT - Orioko FT**
  10:30. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

OSTIRALA 6

ERREGIONALEN 1. MAILA
- **Eguzki ISU - Aldapeta Maria**
  20:50. Maialen Chourraut kiroldegian.

LARUNBATA 7

NAZIONAL LIGA, OHOREZKO J.
- **Eguzki CORPAChef - Ibaialde**
  16:00. Maialen Chourraut kiroldegian.

GAZTEEN MAILA
- **Lauburu Ibarra - Eguzki Avenida taberna**
  13:40. Belabieta, Ibarran.

KADETEEN MAILA
- **Lauburu - Eguzki Escalerilla taberna**
  12:20. Belabieta, Ibarran

IGANDEA 8

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
- **Makax - Eguzki Arkupe**
  12:30. Altza kiroldegia, Donostian.

KADETEEN MAILA
- **Eguzki Urarte Berri - Mondrate**
  09:30. Maialen Chourraut kir.

SASKIBALOIA

OSTIRALA 6

SENIOR 3. MAILA
- **Mundarro - Ostadar SKT**
  20:15. Astigarragako kiroldegian.

LARUNBATA 7

SENIOR 2. MAILA
- **Ostadar SKT - Bera Bera**
  14:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA
- **Ostadar Beltza - Antigua Luberri**
  09:30. Maialen Chourraut kirol.

IGANDEA 8

JUNIOR PARTAIDETZA
- **Ostadar Alvite - Goizper Bergara**
  11:30. Maialen Chourraut kiroldegian.

KADETE PARTAIDETZA
- **Ostadar Urdina - The Big Zast**
  09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.

PILOTA

OSTIRALA 6

ESKUZ, BINAKA, K. 3. MAILA
- **Oteiza - Intza KE**
  17:30. 3. partida. Gurea, Azkoitian.

ESKUZ, BANAKA, I. 1. MAILA
- **Intza KE (Jauregi) - LAPKE**
  18:00. Joxemiel, Lazkaon.

ESKUZ, BANAKA, I. 3. MAILA
- **EPLE - Intza KE (Ibarzabal)**
  20:15. Agustina Otaola, Errrenterian.

LARUNBATA 7

G. PALA, BINAKA, N. 3. MAILA
- **Azkia - Intza KE**
  09:00. Egaña, Mutrikun.

ERRUGBIA

LARUNBATA 7

OHOREZKO B MAILA
- **Donostia Rugby Balezaleak - Universitario Bilbao Rugby**
  16:00. Aiete, Donostian.

18 URTEZ AZPIKOA, EUSKAL LIGA
- **Zarautz Beltzak Eibar - Gernika Rugby**
  14:00. Plaiaundi, Irunen.

14 URTEZ AZPIKOA
- **Zarautz Beltzak RTko jokalariek topaketa batean parte hartuko dute.**
  10:00. Altamira, Ordizian.

IGANDEA 8

16 URTEZ AZPIKOA, EUSKAL LIGA
- **Zarautz Beltzak Eibar - Durango**
  10:30. Asti, Zarautzen.

IGERIKETA

LARUNBATA 31

LIGAK
- **Buruntzaldea IKTko benjaminek Tolosan ekingo diote ligari. Alebinek, berriz, bigarren jardunaldia jokatuko dute.**
  Usabal kiroldegia, Tolosan.

ATLETISMOA

Entrenamendu berezia aurrera eraman dute Atsobakarrera joandako bisitari bereziekin

Hector Gonzalez eta Ruth Beitia adituek eta arituek gidatu dituzte atleten saioak

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Bisita berezia izan zuten atletek urriaren 30eko entrenamenduan, ostiral arratsaldean. Izan ere, 2016ko Olinpiar Jokoetan altuera jauzian urrezko domina izandako Ruth Betiak gidatu zuen haurren saioa. Beroketa Amaia Andresekin batera egin zuen. Jolasean eta lagunartean, giro ederrean preparatu ziren herriko kirolari gazteak.

Altuera jauziari ekin aurretik, Beitiarekin batera borobilean eseri, eta galderak egiteko tartea izan zuten. Tentuz eta adeitsu erantzun zien Santanderreko atletak. Olinpiar jokoetan izandako esperientziaz hitz egin zien, baita kirol profesionaletik erretiratu osteko gaur egungoari buruz ere.

Jarraian, altuera jauziaren inguruko aparteko gidalerroak emanda, modalitate honen inguruan trebatu ziren Ostadar SKTkoak, euren harresiaren bestaldean ziren gurasoen begiradenpean. Lasarteoriatarren gaitasunarekin harrituta, pozik aritu zen Beitia; atleta gazteek ere biziki gozatu zuten prestaketa saio berezi horretaz

Bien bitartean, RFEA Espainiako atletismo federazioko Hector Gonzalez entrenatzaileak teknifikatzeko saioa aurrera eraman zuen. Gaztetxoekin erabilitako dinamika berbera baliatuta, Gonzalezek jarraibideak eman, eta kirolariek orotariko lezioak barneratu aukera izan zuten, hots, hesiak nola saltatu edota besoek eduki beharreko posizioa korrika egiterakoan.

Batzuek zein besteek etorkizunerako oso baliagarriak izango zaizkien jarraibideak eskuratu zituzten bi kirolari aritu eta adituengandik.

Amaia Andresek eta Oscar Goikoetxeak urteak daramatzate Lasarte-Oriako atletak trebatzen eta harrobia zaintzen. Azken denboraldietan Ostadar SKT klubarekin lankidetzan ari dira, atletismoak barnebiltzen dituen modalitate ugari jorratzen: abiadura edota erresistentzia lasterketak, luzera jauzia, jauzi hirukoitza, pisu jaurtiketa, eta abar.



Ostadar SKTko atleta gazteak, Gonzalezen eta Beitiaren zain. TXINTXARRI



Hector Gonzalez (eskuinean), atleta batzuen beroketa ariketak gidatzen. TXINTXARRI



Gaztetxoen galderak adeitsu erantzun zituen Ruth Beitiak. TXINTXARRI

Michelin kirol guneko pista erabiltzen zuten lehen baina udala kiroldegi berria eraikitzen ari denez bertan, tokiz aldatu eta gaur-gaurkoz Atsobakarreko instalazioak erabiltzen dituzte adin tarte desberdinetako neska-mutilak trebatzeko. Entrenatzeaz gain, jakina, konpetitu egiten dute. Horren adibide, alboko zatiduran jasotako; hilaren 1ean 70. Donostiako Nazioarteko Krossean egindakoa, hain zuzen.

70. Donostiako Nazioarteko Krossean zeresana eman dute

Kirol egutegiko hitzordu nabarmenetako bat jokatu zuten Hipodromoan hilaren 1ean: Donostiako Nazioarteko Krossaren 70. edizioa. Hemengo zein nazioarteko izen handiko atletez gain lasarteoriatar ugarik parte hartu zuten adinen araberako modalitateetan eta denek ala denek eman zuten zeresana; lan ona egin zuten seinale.

Ostadar SKTren Atletismo saileko gazteak alebin eta infantil kategorietan aritu ziren. Denentzat izan zen esperientzia aberasgarria Hipodromoan bizitakoa. Nabarmentzekoa da Irati Gallegok eta Erin zein June Iruretagoyena ahizpek egindako lana; 18 urtez azpikoen kluben arteko lehiaketan hirugarren postua erdietsi zuten.

Absolutuen kategorian Aimar Sukunza (Zumeatarra taldean ari da) izan zen Lasarte-Oria ordezkatu zuen lasterkaria: 23 minutu eta 39 segundoko marka egin zuen eta 26. postuan helmugaratu zen. Mari Carmen Olaso kirolari zailduak, berriz, Master mailan konpetitu zuen eta 41. postuan zeharkatu zuen helmuga, 14.27ko marka eginda.



Hipodromokoa esperientzia polita izan zen gaztetxoentzat. OSTADAR SKT




Hirukote honek hirugarren postua lortu zuen kluben lehiaketan. OSTADAR SKT



1. Sukunza, helmugaratzen. 2. Olaso, saritu batekin. FOTORUNNERS/MC OLASO

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Maite eta Manolo
Zorionak bikote zuen 54. urteurrenean! Bonboi bat, edo bi...goxo-goxo! Ondo ospatu Tuteran eta animo olibekin! Zuen geltoki kaleko bonboiak!

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 6 DE MIGUEL
LARUNBATA, 7 GIL
IGANDEA, 8 GIL
ASTELEHENA, 9 DE MIGUEL
ASTEARTEA, 10 KNIESE
ASTEAZKENA, 11 KNIESE
OSTEGUNA, 12 KNIESE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO
22:00etatik 09:00etara
CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbieta kalea 7, / 94-55 29 41

URTE OSOKO GUARDIAK
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

IRAGARKI SAILKATUAK

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
publizitatea@ttakun.eus
www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

SUDOKUA

sudoku #2865

		6	2					8
3		2	8	7			5	6
	8				5			2
		8				9	6	4
6			3		7			
		4			6	5		
		3		5		6	8	
5			4	2	8		3	

www.sudoku-online.org



txintxarri WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria, Iñigo Gonzalez Sarobe, Maddi Noriega Zaldua eta Lierni Apaolaza Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain Peña.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo, Jexux Artetxe, Aizpea Amas, Maitane Rebe eta Pili Ormazabal.

Banatzaileak
Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Axier Iraola, Eneko Sanchez, Udane Guisado eta Manex Azkonobieta.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | *txintxarri@ttakun.eus*

OSTIRALA 6

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Okendo Zinema Taldeak *Inurri itsuak* filma emango du. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 7

LASARTE-ORIA

- **Tailerra** 7 edo 8 urte dituzten haurrentzat Matematika sukaldaritzan tailerraren bi saio egingo dituzte. Udal Liburutegia, 10:30etik 11:30era eta 11:45etik 12:45era.
- **Tailerra** Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren 25. urteurreneko ekimenen barruan, Binahi-ko itzultzaile lasarteoriatar Igone Gonzalezek lan horri buruzko tailerra emango die izena eman duten 10 eta 16 urte arteko gazteei. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 11:00etan.
- **Musika** *Negua Joan Aurretik* zuzeneko musika saioa egingo dute Alain eta Mikel DJek. Siglo 20 taberna, 18:00etan.
- **Antzerkia** *Bi baso bat ur* antzezlanaren emanaldia egingo dute Metrokoadroka Laborategi Kolektiboko kideek. Intza Alkain aktore lasarteoriatarra da horietako bat. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etatik aurrera.
- **Musika** Kontzertua emango du Moxomo artistak. Sarrera doakoa da. Jalgi kafe antzokia, 19:30ean.

IGANDEA 8

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Hogei urteko ibilbidea ospatuko dute Xumela koruko kideek, gonbidatu berezi hauekin: Olaia Inziarte kantaria, Jon Maia bertsolaria, Ramon Agirre aktorea, Aiora Zulaika Pirritx pailazoa, Serigne Lo musikaria eta askotan bidelagun izan dituzten Montetxio zein Olagarro taldeak. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 12:00etan. Egun horretako protagonistak ordu erdi lehenago elkartuko dira Jalgi kafe antzokian; hamaiketakoa egingo dute eta kalejiran abiatuko dira aretora.

ASTEARTEA 10

LASARTE-ORIA

- **Hitzaldia** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Resistencia y organización de las trabajadoras del hogar y los cuidados* hitzaldia emango dute Malen Etxeako langile Silvia Carrizo Fernandezek eta Maitelaneko behargin Maria Elisa Peredo Quirozek. Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

ASTEAZKENA 11

LASARTE-ORIA

- **Aurkezpena** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Una joven prometedora* filma emango dute. Ostean, horri buruz solastatuko dira bertaratutakoak. Biyak Bat egoitza, 17:00etan.
- **Literatura** Monica Leivak gidatutako saioan Fatema Mernissi idazlearen *Sueños en el umbral* eleberria landuko dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etan.



MENDI URRUZUNO

LASARTE-ORIA Antzerkia Metrokoadroka Laborategi Kolektiboko kideek Bi baso bat ur antzezlanaren emanaldia egingo dute; Intza Alkain aktore herritarra izango da oholtzara igoko denetako bat. Sarrerek 6,10 euro balio dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 12

LASARTE-ORIA

- **Hitzaldia** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Volar* dokumentala proiektatuko dute. Ondoren, bertaratzen direnek solasaldia egingo dute Nerea del Campo Agirre eta Bertha Gaztelumendirekin. Antonio Mercero aretoa, 18:00etatik aurrera.

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA

- **Bakarrizketa** Mikel Bermejo umorista lasarteoriatarrak *Señales* ikuskizun berriaren bi emanaldi egingo ditu. Baterako zein besterako sarrerak agortuta daude. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan eta 21:30ean.

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Sarrera librea da aforoa bete arte. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 11:00etan.
- **Dantza** Erketz EDT taldekoek truke egitasmo bat aurrera eramaten ari dira eta horren barruan emanaldi bateratua egingo dute Alacant-etik etorritako Grup de Danses Centener de Villajoyosako dantzariekin. Euskal folklorea eta Valentziako tradizioak uztartuko dituzte. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 18

LASARTE-ORIA

- **Balleta** Jean Dauverbal konpositoreak 1789an sortutako *La Fille mal gardée* bertsionatu zuen Sir Frederick Ashtonek, The Royal Ballet konpainiarentzat. Talde horren emanaldi digitaletako bat proiektatuko dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 19

LASARTE-ORIA

- **Musika** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, kontzertua emango du Biyak bat koruak. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA

- **Antzerkia** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Taberna Paraíso, un año después* antzezlanaren emanaldia egingo dute Makelur antzerki taldeko kideek. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 25

LASARTE-ORIA

- **Mobilizazioa** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, elkarretaratzea antolatu du. Okendo plaza, 12:00etan.

OSTEGUNA 26

LASARTE-ORIA

- **Hitzaldia** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Indarkeria digitalak, nanosfera eta beharrezko tresnak gazteen artean sortzen ari diren indarkeria mota berri horiei aurre egiteko* hitzaldia emango du Sortzeneko kide Sheila Melcon Lopezek. antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Lasarte-Oriako Udalak Azaroaren 25aren bueltan antolatu duen egitarauaren barruan, *Sacamantecas* filma emango dute Okendo Zinema Taldeko kideek. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.



TXINTXARRI

LASARTE-ORIA Ospakizuna Hogei urteko ibilbidea ospatuko dute Xumela koruko kideek gonbidatu berezi hauekin: Olaia Inziarte kantaria, Jon Maia bertsolaria, Ramon Agirre aktorea, Pirritx pailazoa, Serigne Lo musikaria eta askotan bidelagun izan dituen Montetxio zein Olagarro abesbatzak. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 12:00etan.

Itxoitera eseri, eta denborarik ez egunkaria zabaltze...

HEMEN DA TOPO BERRIA

TOPO berria, inoiz baino arinago.
Esaldia bukatzeko astirik ere ez!
Hiru geltoki berri eta tren bat 7,5 minuturo

Berrestreinatu! Azaroaren 21etik aurrera

+info **topo.eus**

euskotren

etss euskal trenbide sarea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE

40urte 11 galdera
EUSKARAREN MARATOIA

BI SARI

EUSKAL HERRIKO LANDETXE BATEAN

bi gauetako egonaldia, gosariarekin eta afariarekin (bi pertsonarentzat)

Azaroaren 8a parte hartzeko azken eguna!

BABESLEA

LABORAL kutxa

Parte hartzeko:
labur.eus/maratoia40urte